

IRU ILLABETE BENIDORM'EN

ZOAZ EUSKALERRIRA

Berna-bizi dogu euskalduna; mundu-zear, gaur emen eta biarango uri ta mendien ikerle dana. Sarri, geure erri ta etxea baiño kanpo-aldeak maiteago doguzala erakutsi oi dogu errialde, itxasegal eta mendi-aldatz legorak. Eta andik gabiltzanean bertatik diñogu: "Ez dago iñun gure erria langorik!" Opor-aldi baten, esaterako, zetan zoaz asao zeure erri, gaillur, itxaso, bazter ikusgarriak itxita?

Ez dago txarto erbesteak be ezagutzea; gure sorbaldez beste aldetik zer dagoan jakitea. Orretan gabiltzala au be ikasi daroagu, ots, geure lurra, arna-lurra baiño obeagorik guretzat ez dagoala; edegi begiak, ibilli, jolastu, billa atsegiña, alan be geurea onena. Mundua arakatzuz Iparragirre, baiña biotzak iñotson: "Zoaz Euskalerrira!" Benidorm'en nintzala, gaur Madrid'en bizi dan batek esaten eustan: Ni jaiotzez euskaldun izanik, gaur Madrid'en bizi naz, baiña euskal kezka bizi naz neuretarrez etena".



LANA, IKASKETAK...

Alan be, leen eta gaur, euskaldun asko urrindu jaku geure lurretik, lana, ikasketak, bildurra bitarteko dala; osasun-billa ez gitxi, neguz eta udaz. Benidorm olako asko-askoz beterik daukagu, urte osoan, ilia bete edo geiago egitera ara joanda; autobusez, egazkiñez, ez trenez ainbeste, aukera ederra daukazu joan-etorria egiteko. Ez da garestia be, urteetan aurreratuentzat batez be.

An ba-dagoz otelak orretan, au da, emengo jentea ara eroan eta ekarri, kotxe ederretan aukeran egiteko ardurutzen diranak: Benidorm turismotik bizi da, ia oso-osoa, eta orretan saiatzen dira, Mediterraneo ertzean ondartzatza, ur-epel, egurats toki luze zabalak, otel pillo ikaragarriak, denda dizditsu, edari ta jatetxe zuri-zuriak, musika ta dantza lekuak guraiña, izkuntza guztietan.

Emengoak be orretan diardue batzuk. Euskaldunak lentxoago eta orainez dira gitxi orretan arduraturik eta bertan bizitzez dagozanak; ni ango iru illabeteak osoturik, etxeratu nintzan aurretxoan, onako ogeta-amarretik gorako pixu bat bedeinkatzera deitu eusten Dima'ko andra-gizon batzuk; senarrak leen be Banku-Bizkaian an lan egin eban, ango giro ta bizimodua, eta orain zartzarotua here osasunerako be leku ona zala-ta, an erosi dau pixu bat. Eta aurretzean, here erriaz aaztu barik, an biziko da jakin ez zenbat urtetan.



DEITU ETA ERANTZUN

Urte batzuk dirala, Gautegiz-Artia'n nengon Aste Santuz autor-tu eta itzaldi batzuk egiten, eta asti-une baten Kortezubi'ra eroan ninduen ango apaiz jaunarekin berba egin eta eleiza jagia ikusten; apaiz orrek daroa, Jose Felix'ek ara Benidorm'e'ra, "Vista Blanca" otelera doazan euskaldunen ardurea, eta ordezkotza billa ebillela esan eustan; nik ezetz, oso lanperatua nenbillela; geroago igaz, Larra'ra

etorri jatan ia joango nintzan erreguz esanik. Eta bigarren ezetz ukatu eziñik, baietz, joango nintzala, erantzun neutron. Eta ona ni Benidorm'en. Ez naz damutu etorriaz.

1992, Erregeen biaramona. Esan jatanez, goizeko zazpirak eta amarrean, Zornotza'ko kale nagusian nengoan Durango'tik etorren autobusa ni eta gaiñerakoak, naikoa, Benidorm era eraoango ginduzana. Arratia'n eta Bilbo'n artu genduan jente geiago eta bete-bete egin zan gure tarranta; eta Gasteiz'erantz. Emendik Haro alboraturik, Logroño, Kalagurri, Tudela eta Gaillur laño itsu-itsupean egozala, Kariñena, eta beste ainbat errixutarako bidea artu genduan.

Zaragoza'ko probintzian eta Teruel'goan ekiñaldi galanta egin ondoren, mendi, zelai ta landa legor Zugatz bako ikusi genduzanean, Teruel uria baiño pizkat lenago jatetxe bat, El Milagro, txoferrak eztarria eta sabela ase-bustitzeko dauken jatetxea. Bazkari polita berton. Eta aurrera Teruel ezkerrean izten dogula. Ekin eta ekin, illuntzen asi zan. Kotxe gitxi bideetan. Gernikerako bidez, Autzagane'n ara-ona naiko geiago noski.

Or Benikasin itxas egalean, karmeldar gogartetxea, eta Kastellon, eta Balentzia Zabal-nasai laranjaz beteriko landa berdeakaz... Or azkenez Benidorm, Alikante'ko probintzi barruan. Illuntzeko zazpirak jota daukaguz. Euskalerritik urrun, ementxe biziko naz irubat illabetean, aize, eguzki ta jentez arrotz legez, Vista Blanca otelean. Derramador kalean itxi dogu ekarri gaitun kotxea, txoferrari "Ezkerrik asko" esanez.

Kolore zuria dau otelak, orain urte asko ez dala jasotakoa, bealdeko jantoki, areto, ziñe, sarrera, urtegi eta lau pixu goi daukazana. Eldu, mailladi nasaitik jatsi ta sarrerako aretoan gagoz. Bakotxari emen gagozan bitartean izango dogun gelea, bakarkoak eta biñakoak geienak, izentatu dauskuez. Goi-gailluz geletara igon, Iaga bakotxak here gauzak eta apaltzera; eta ondoren lo gozoa, nekatuta be ba'gengozan eta.



FEDE-GIROAN

Urrango goizean, bederatzietan, gosaltzen gengozan, gu eta gure aurretik an egozanok; egunero orrelaxe. Ondoren mezea, ziñe aretoa bete-bete egiñaz, au be amarretan, egunero orrelaxe, astegunez naiz igandez; bete bearrezkoa etzan an-en, guk olantxe: euskal meza, erdeldunak be ba-zirala-ta, irakurgaienak eta kantaren hat erderaz egiñik be, guk euskeraz, kantu, otoiitz eta abar gogotsu. Mezea, geienez, norbaiten asmoetarako esan oi neban. Autortzak be ez nebazan gitxitan egin; zapatu arratsalde baten, bertakoak eskatuta, alkar-autortza ospatu genduan, ondoren mezea eta eunetik gorako Jaunartzea.

Gero, osagillea, egunero, alboko gelan geunkelako, iñor osasunaz ondo ez ba'ebillen, aregaz egonik, bakotxa azke zan goiz guztirako, ordu-batak arte bazkal-ordurarte, ondoen eritxona egiteko, paseo-lekuan, ondartzan naiz kale-zear ango aizea artzeko.

ITXAS-E,(;ALEAN ETA ,JATEN

Benidorm'ek itxas-egal luze-zabalean (iru kilometro lez ei daukot lute) paseo-leku ederra dauko, eta eguraldi zirimirri hakoa danean. eguerdirantza ona jotzen dau jenteak, izkuntza guztietakoak, eundaka ta millaka batten dira hertan. Ni he, gure oteletik ur-ur egiten dalako, lenengotan hate/. he, hazter arrotzak ezagutu arte. arantta joaten; etziran gitxi euskeraz mintzatzen tiranak.

Jatorduak, eguerdian ordu hatetan eta illuntzea zortzirak eta erdian zintzo zaindu hear tiran. "Self servis" tankeran jaten genduan, eta norhere kasa ezin tirkin egin. Mai lute hitan eukiten genduan jatekoa; lenengo tresnak artu eta gero janaria, ogia. ortuari pizkat, zukua, indaba, garbantsu, txilista naiz beste egosi hat; gero beste plater haten okela, arrautza, arrain edo beste zerhait, hakotzak nai aiña, eta azkenez frutea, laranja edo sagarra geienetan.

IBILLALDIAK ETA POZA

Jantokitik kanpo akeita edo kamamilloa, Mk au artzen nehan; gero, hesodun aulkietan jarririk, konta-kontari lute sanwrra egiñik, edo ordu heteko bazkal-ostekoa edo aurretik eraturiko ibiltaldia egitera. Batzuk, eguraldiak lagundu ezkerro, ondartzara joaten ziran, naiz bertan etzunik egoteko naiz ur-ertzean ihilliz anak kresaletan sendotzeko. Beste hatzuk, gazteak bereziki, alboko mendietara igon oi ehen, ango bazterrak eta goibeak ezagutu ta miresteko; lenengo iru illebetetan arin gautt.en ehan eta hizkor etxeratu hear.

Aparia esan dot, zortzi terdian, eguardian let. noberak nai beste, artu eta serbidu; gero izketa luzeak geleterarte. Egun baten bai ta bestean ez, amabiak arte musika eta dantzea. Ara doozanak bai dirala dantza-zale! Oiñak zortu ez daitezcan, eragiña hear ei dahe! Zaar eta gazte, alargunak izanik be, anka azpiak jorratzen zoli he zoli! Bigarren hatzuk herton dantzarik egoanean. edo egun bitartean, alboetako oteletara jo oi ehen. Esan emen goragotxoako "Capypso" oteleko aretoari! Ba-ziran herandutxo etxeratzen ziranak be, eta ondoren istilluak!

URIA ZELAKOA

Benidorm uri ederra danik nik neuk ezin nengike esan. Turisotik hizi da eta agintariak (len sozialista bat, gizonezkoa eta gaur, arek, miin txarrak diñoenez, txarto egiten ebalako, emakume hat) ardura aundia ipinten hazterrak txukun eukiten.

Etxeak eta otelak, alan be, azken boladan eskabide geiegi zalako, jas eta ordena exkasez egiñik dagoz.

Toki all berez, lau aldeetatik hegitu ezkerro, ezta motza: itxas-ertza, aurrez-aurre, uretatik beret jaiota lez, arri-mokor zakarra, lenagoko kañabera eta olibo-sail iparretik gora doan lautada eundaka otelez, goitasun aundikoz josia; asarre danetan itxasoari eusteko sortaldetik egurats-toki baliotsuz ornidua.

Garai baten emen etzan amets bat baiño, otelak eta otelak alkarren gain jaso baiño; euskaldunak be ortan jardunak doguz, "Etxe Zuri" eta antzeko izenak azgiri dira Otel batzuk.

Oteletatik geienak ez dabe eder-izate aundirik, goitasunak damotsena izan ezik; nik bat, begi-zoli, ogei ta amabikoa miretsi neban. Kaleetan, beraz lau ta errezzana artez eta dotore jartea, emen be en-i askotan; Udaletxearen erruz, egin danez, naste barre-garriz pillotu dira inguru ta bazterrak.

Erri baten, etxeak, kaleak eta paseo-lekuak markeratzean, ez itxi nik ikusi dodanez, arkitektura-gaiak etxe-jasotzaillen eskuetan, orrek diru-billa dahiltz, ez eder-billa.

Antxiña baten arrantzale-uria zanean daukazu Udaletxea, eta here zar-itxuran, ba-dau zer-ikusia; gaur Benidorm'ek, otel moltzo ikaragarriak kendu ezkerro, alderdi onetxek dauko eder-haliorik geien.

Ego-aldeko mendi eskerga baten oiñean dago kokatua, egal guztiok etxe ta txaletez heteak. Nire oteletik urrin sanaar kilometro bira let dagoala he, atsegin jatan arantta joatea. Arako hidean daukazu gaiñera Karmengo Amaren eleiza ederra; herton daukagu igandero, euskaldunentzat euskerazko mezea, bertoko eleiz-arduradun ain zuzen be Abadiño'ko alaba karmeldar monjea dala.

IBILTALDIAK ETA AUKERAK

Aukera gendun, bazkal-ostean, autobusean. dubarik, ibiltaldi eder bat. Otelen oitura let dogu au. Bazkal-ostean, aurretik itz-egindako autobusa etorten jakun iruretan oteleko atera, eta hertan sarturik, arratsalde ederra emon oi genduan nai genduanok.

Ur egozan errietara tan geienetan: Villajoyosa, Kalpe ta abar, baita urrunago be Alikante, Eltxe, Guadalest, Santa Pola, Guardamar. Gau-txangoak he erutzen ziran, eta egun guztikoak Balentzia'ra. Cartagena, La Manga, Murzia eta inguruetara. Leku politak ikusteko aukera genduan. Kalpe'n esaterako Hach'eko arri-mokorra eta here portua. Txango oneik sarri txokolate, zapata edo narru fabriketara izaten ziran, zabalkuntza egiteko, eta ezta esan bearrik beti jausten tan zerbait.

Club Internacional del Lihro eritxonak be, igandez jakiña, ainhah itzaldi eta erakuste egin oi ebazan here liburu eta gauza baliotsu askorekin. Beti saltzen tan zerbait; txokolatetan eta jantzietan beste ez, alan he, liburutan: an eta emen, kultura-zaletasun urria, antza danez. Nik liburu pillo batzuk eskuratu nitun.

Jai-zalerik asko nainon. Neguz naiz udaz. Jenteak zer eskatzen, axe emoten, axe eskintzen, baita kale zabaletan he. Benidorm'ek ba-daki jentea zelan erakarri. Erlejiño kontuan be, Benidorm edo emen bizi diranak, ez dira atzenengo; Abadiño-Mendiolako moja-txoak onela inosten: "Iñor dudaz ba'lego, hetor domeka nai astegun Karmengo Amaren eleizara". Astegunez be an, jai aundietan lez, daukazu jentea meza entzuten.

ETXERANTZ

Eta beste gauza jakingarri ugari esateko itxirik, atsedendu bedi emen nine luma. Iru illabete osotuturik, euskaldun talde batek, beste batzuk aurretik egin eben let, geure pardelak leporatu genduzan goizeko zazpiretan, eta illuntzirako etxeratuko ginduzan busean gengan.

Arunzko bidea onuzkoan be egiñik, Balentzia, Teruel (emen bazkaria), Zaragoza, Logroño, Izarra atzean geratzen ziran gain edurtuz beterik. Geure en-ian gara, Arrigorriaga, Bilbo; jente pilloa itxi dogu emen, Zahalburu kalean. Guk aurrera, Durango eta Kortezubi'ra ante. Ni Zornotza'n jatsi naz bertokoakaz. Etxano'ko andra mazal batek amari itxaroten dautso here berebil eta seme-alaba bigaz. Arek narroia, ni be Larra'ra.

AITA ONAINDIA